

IXTILIBAKIO

4. Zenbakia
1989ko Maiakoa

100 pta.

ABESTIAK

Fernando Artola "Bordari" k biziro maite zuen itsasoa. Poeta honen olerki askok itsasoa dute gai. Aitaren letrak hartuz, Txomin Artolak "Olaxtak" izeneko diskoa osatu zuen orain dela hiruzpalau urte. Bertatik abesti hau aukeratu dugu. Itsas-txakur baten istorioa kontatzen du.

1

Gu gazte giñadela
Txalupa guziak
Zakurtxo bat oi zuten
Ontzi barrenian
Begi-erne abilla
Eta zaunkaria
Iges zijoan arraia
Arrapatzailea



t.artola

2

Seme, esango dizut
Nola gertatzen zan
Puñittutako arraia
Suelto...batzutan
Legatzak ospa! iges...
Txakurra jausten zan
Ta bet-betan arraia
Artzen zun ortzetan.

3

Lana orren saria
Zakurren partia
Deitzen genion guziok
Ongi merezia!
Maite, maitea zan
Zakur eiztaria
Txalupa betetzen zun
Anima gabiak...

4

Unea etorri da
Zuri kontatzeko
Zer nolako txakurra
Zan gure "Txuriko"
Auin izugarriak
Etzun izutuko
Arraia utzi baiño
Lenago itoko.

5

Goiz itsusi batean
Ez naiz ez aztuko
Bere lana beteaz
Jausi zan "Txuriko"
Baga aundi artean
Eiza...! ez utziko!
Legatz aundi batekin
Ito zan betiko.

A U R K I B I D E A

Txitxilibakioren 4.ALEA

*Ihauteriak ahaztu ezinik.....	2
*III.Etxepe Sariaren irabazleak.....	5
*"Alkatia ta pregonerua".....	8
*Orixeren bertsoak.....	11
*Hamar minutuko "egurra" gorputzari.....	12
*Makina Herramienta eskolaren proiektua prest Elgoibarren.....	14
*Horoskopo dietetikoa.....	17
*Neurotikoa al zara ?.....	20
*14 galdera "Ekekei" antzerki taldeari.....	22
*Aholkuak.....	26
*Pastelero dale fuego!.....	27
*Beherapenak bai ala ez ?.....	28
*Bitxikeriak.....	31
*Berdintasuna gezur hutsa da!!.....	32
*Liburuak-Zinea.....	35
*Denborapasa.....	36
*Irakurlearen txokoa.....	38
*Soluzioak.....	39

Elgoibar, 1.989 ko Martxoa.



IHAUTERIAK AHAZTU EZINIK...



Guretzat, mundu "zibilizatu" honen gorabeheretan murgildurik gaudenontzat, Otsailan ospatzen diren Ihauteriak bere esanahi guztia galdu dute jadanik. Baina Euskal Herriko zenbait tokitan, aintzinateko ohiturak mantendu izan diren herrietan, Ihauteriak, oraindik, bere lehenagoko sinbolizazioa erakusten duela dirudi.

Lehendabizi, "euskal Ihauteria" kontzeptua baztertu beharra dagoela dirudi; Euskal Herrian Ihauteri desberdinak daudelako; eta hauek Europako Ihauteri jaien barnean kokatu beharko genituzke.

Pertsonaiak

Ihauteri gehienetan panpin haundiak egitea

sarritan ematen da (Lantzeko Miel Otxin). Panpinek errepresentatzen dituzten pertsonai hauen burua gorde egiten da urte batetik bestera, eta horrela, pertsonai bera agertzen da urtero.

Panpin haundi hauek herrian zehar eramanak izaten dira (zaldiz, gurdi edo bizkar gainean), eta gehienetan bortxakeriaz tratatuak dira. Azkenean, epaiketa baten ondoren, heriotza izaten da beraien patua, gehiegi jan omen dute-lako edota ezbeharrak sortzen dituztelako, eta fusilatuak, urkatuak eta gehienetan sutan erreak izaten dira.

Panpinekin batera badira beste pertsonai nazkagarri eta beldurgarri batzuk, jkusleak erasotzen dituztenak.

Bestalde, animali itxura hartzeko mozorrotzen direnak ere badira Euskal Herrian ospatzen diren ihauteri jaietan; hala nola, artza (Iparraldean, Markinan ...), gonadun zaldia (Zuberoako zamalzaina) eta katu itxura hartzen dutenak.

Artzaren pertsonaia, batipat Goizuetan, emakumeen atzetik ibili ohi da, hauen arpegia ikatzez zikintzeko. Azkenean, artza jipoitua izaten da.

Gonadun zaldia, aldiz, etengabe mugitzen ari da, eta dantza erritualak egin ohi ditu. Zaldiak hildakoen munduarekin zerikusia duela pentsatzen da. Bestalde, zaldia puzkarrekin erlazionatu izan da; Erdi Arotik ihauteria puzkarrak sorrarazten dituzten elikagaiekin loturik bait dago (babarruanak batez ere).

Hala ere, benetako animaliak ere agertzen dira: oilarra, oiloa (burua mozten zaie, Gernikan ka-

surako) eta zaldizkoak.

Pertsonai guzti hauetan bi garaien arteko etena ikusi behar da, ihauteria-garizuma, eta pertsonaien desagertzeak garai berri batetarako sarre-ra suposatzen du: jaiaren oparotasunetik garizumaren eskasia eta baraura.

Ekintza. Musika, dantza, bortxakeria.

Hemengo nahiz atzerriko ihauterietan "zarata" oso elementu garrantzitsua dugu: kanpaiak, zintzarriak eta batipat, Ituren-Zubietako zanzarrak. Zenbaiten ustetan, zaratak - udaberria hastear dagoela - oraindik loak hartuta dagoen natura esnatu nahi du.

Ihauteria, bestalde, dantzarako aitzaki bihurtzen da toki askotan (Markinan, Iparraldean, Baztanen ...). Zuberoako ihauteriak, bere maskaradarekin, antzerki itxura hartzen du.



«» Ituren-Zubieta.



«»

Miel Otxin (Lantz).

Bortxakeria ere sarritan ematen da Euskal Herriko ihauterietan; neskak zakuekin, makilekin eta erratzekin jipoiatuak izaten dira; panpinak akatuak eta hegaztiei burua mozten zaie. Bortxakeria beharrezkoa dirudi garai batetik bestera igarotzeko, eta behar bada, uxaketa eta ernalketarako.

Heriotza-berpizkundearen antzeztea ere ematen da askotan, negutik udaberrira igarotzen den bezala.

Baina gogorkeria guzti hau gizarteak eta moralak finkatutakoaren aurkakoa izaten da. Sexualitateak, lapurreriak eta marjinazio sozialak badute honetan zerikusia.

Emakumeak ez du parte hartu izan Euskal Herriko ihauterietan, eta beraz, gizonak bete behar izan du emakumearen papera (Orioko sorgin dantza), gonak jantziz edo emakumearen funtzioak imitatuz (haurdunaldia ...).

Kastrazio antzeztea eta sexuarekin lotura duten keinuak (masturbazioa, sodomizazioa) ere ugariak dira.

Marjinazio sozialari dagokionean, Beran eta Zuberoan ijitoak giza talde baztertu bezala agertzen dira.

Ohitura guzti hauek eta beste batzuk Euskal Herriko zenbait tokitan orainarte mantendu izan dira, baina azkenengo urteotan ezagunagoak ditugun ihauteriak (Lantz, Altsasu) paraje turistikoko bihurtzen ari zaizkigu, kanpotarrok ohitura desagerrarazi edo itxuraldatu dezakegunik kontutan hartu gabe. Beraz, utz ditzagun ohiturak bizitzen!.

Bibliografia

EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA;
Dantzariak (aldizkaria) 33, zenbakia.

"intento de clasificación de los carnavales rurales vascos en 1983-84".

THIERRY TRUFFAUT

III. ETXEPE SARIAREN IRABAZLEAK



Abenduaren 30 ean, III "Etxepe" Literatur lehiaketaren sari-banaketa egin zen. Elgoibarko Ikastolako, nahiz beste Ikastetxeetako ikasle eta ikasle-ohien ingurua, nolabait, girotu nahian eta euskaraz idazteko zaletasuna sortzeko asmoz, Idaz lehiaketa eta Jaialdi bat eratzen ditu Etxepeek. Hasiera batetan bi urtez behin egitea pentsatu zen baina hemendik aurrera urtero egingo den lehiaketa, izango da. Eskertzekoa da Etxepeek, literatur mota guztiak eskainiz, idazle hasi berriei ematen dien aukera.

Oraingo honetan, Txitxilibakioren lantokian bildu gara, III. Etxepe Sariko irabazleekin elkarrizketatxo bat egiteko asmotan. Beraien aurkezpena egin ondoren, hiru galdera egin dizkiogu bakoitzari eta hona hemen erantzunak:

O.H.O.ko mailan Marta Sanzen "Udazkena" lana gertatu da irabazle. 13 urtetako neskatila hau 8. maila egiten ari da Ikastolan. Bere hobbien artean, irakurtzea eta lagunekin kalera irtetzea atsegin zaiola aditzera eman digu. Aipatu beharra dago, lehenago ere, 5. mailan, hiru lagunen artean "Inurria eta kilkerra" ipuinaren moldaketa bat aurkeztu zutela Gipuzkoa mailan egindako lehiaketa batetan.



TX.: Ikastolan agindutakoa ala zure aldetik egindako lana izan al da?

Marta: Ikastolan parte hartzeraz animatu gintuzten eta inor ausartzen ez zenez gero, denok egin behar izan genuen idazlana. Eta denon artean, batzuk soilik aurkeztu ginen.

TX.: Nagusitzen zarenean idazle famatuak izan nahi al duzu?

Marta: Gustatuko litzaidake baina oraingoz, ezinezkoa iruditzen zait.

TX.: Zein da irakurri duzun azken liburua?

Marta: Gotzon Garateren "Alaba".

TX.: Lan berarentzat bi sari ez al da gehiegizkoa?

Amaia: Beno, nik ez nuen uste Etxepe Sarian nire lana saritua izango zenik,

Ertainen mailan, Amaia Leiaristiren "Ihes betea zilegi balitz" lana saritua izan da. 17 urtetako neska hau U.B.I. (C.O.U.) egiten ari da Batxilergo Institutuan. Bere hobbien artean pianoa, irakurtzea eta idaztea aipatzen dizkigu. Esan beharra dago, idazlan berberarekin Eusko Jaurlaritzak "Urruzuno" deituriko literatur lehiaketan irabazleetako bat izan dela.



baina azkenean horrela izan da.

TX.: Noiztik duzu idazteko zaletasuna, familia kontua al da?

Amaia: Gurasoen aldetik ez dago zaletasunik, baina nire ahizpa ere saritua izan da Etxepeko edizio hontan. Aspalidanik nengibilen mundutxo hontan sartua baina literatur lehiaketa kontutan sartu gabe. Nire idazteko joera txikitatik datorkit eta orain arte bezala, idazten jarraitzea gustatuko litzaidake.

TX.: Irakurri dituzun liburuetatik zein gustatu zaizu gehien eta zein gutxien?

Amaia: Gehien, Txomin Agirreren "Kresala" gustatu zait eta gutxien Kintanaren "Ta Marbuta", ulergaitza gertatu zitzaidan eta.

Maila irekian, Alberto Ansuategiren "Larunbat batez" lana gertatu da irabazle. 21 urtetako gazte hau "Ekonomikak" karrerako 4. maila egiten ari da. Bere hobien artean, mendira joan, kirolak eta poteak hartzea ditu gustoko.



TX.: Zer egiten du ekonomista batek literatura munduan?

Alberto: Oraindik ez naiz ekonomista eta gainera BBB-n literatura eman nuen. Idaztea gustatzen zait baina ikasketek ez didate idazteko denbora gehiegirik uzten.


TX.: Lehenengo aldiz aurkeztu al zara ETXEPE sarira? Saririk jaso al zenuen?

Alberto: Ez, bigarren aldia da. ETXEPE sariaren 1.go edizioan "Euskera jalgi hazi kalera" lanarekin 3. saria lortu nuen.

TX.: Zertan gastatu behar dituzu sariari dagozkion 100.000 pezetak? Liburuak ere erosi behar al dituzu?

Alberto: Ondo geldituko litzateke hori esatea, baina beste gauza batzutan gastatu dut dirua, Aste Santuko oporretan adibidez.

Datorren urteko "Etxepe" lehiaketa ere esku hartuko dutelakoan, agurtzen ditugu hiru idazle berri hauek. Zorionak guztioi eta aurrera.



.....

.....

I

Sonatua zan inguru guzian Mendiondoko alkatearen ostatua: bera zan errikoetxe edo *kontzejua*, alondeia, ikastetxea, *kartzela*, ardantegia, bizartegia, gauza guziak saltzen ziran denda, eta Urteberri egunetik aurrera baita're *korreoko aministrazioa*; itz batean, gauza guzien tegia, edo gaurko eguneko erdalzaleak esango luketen bezela, *zentralizazioa*. Beragatik zan ere oso sonatua Mendiondoko alkatea, beste akatsik gabea, baizik erdalzaletxo izatea; baiño bat edo bat erdalzalea izatea're ondo zan errian, zer gerta're.

II

—Anton: orra oraiñ *enpleo* ona; eta ikusiko degu nola *portatzen* zeran.

—Alkate jauna, egon bedi ardura gabe; nik ondratuko det beori nere *enpleo* berrian.

—Gaur *pregonatu* bear dezu nola nere etxean jarri degun *buzoia*.

—Zer da putz-oia? Oraiñ atera dan oe berriren bat?

—Ez, gizona, ez: *korreoko kartak* botatzeko lekua; ara, begira ezazu gure atara.

—A! Ondo da, jauna; eta nola nai du? Erderaz ala euskeraz *pregonatzia*?



—Obeko dezu bietara egitea, esamesarik izan eztediñ, zu ta ni baiño beste erdalduunik ezpadago're errian. Lenengo egingo dezu erderaz, bigarren euskeraz eta irugarrenean nai dezun bezela.

III

Badijoa pregoia jotzera. Pozik bera eta pozik erriko jente guzia, batez ere alkatea, gauza berria bezela, pregoia aditze-ko. Pozaren pozaz aztu zitzaion Antoni laister, nekez ikasitako izen *buzoiarena*; baiña orregatik etzan makaldu; bada arrada luzea atabalean jota, erri guzia inguratu zanean, deadar egin zuen:

—*Abiso al plúuubiko. En la postdata (1) de Señor Alcalde está... está... karta-bujero.*

(1) Posada. (Egillearen oarra).



—Ez; ez uan ori orrela —esan zuan alkateak—, baiño naikoa dek lenengorako.

Gaiñerakoak, nola erderarik etzekiten, an gelditu ziran aoa zabalik, beste munduko gauzaren bat esan balu bezela. Anton berriz *pabo*-errialia baiño arroago gelditu zan.

Aditu dezagun orain bigarren pregoia:

—Nere erritar maiteak: gaurtik aurrera *korreoko* kartak botako dituzute... alkate... jaunaren... zuloan.



Emen jendeak barre askotxo egin zuen, eta alkatea berriz betozkodun jarri zan. Gaiñera alkatearen ondoan zegoan atso batek bota zion oni, pregoia aditzean, jaka-poltsiko edo sakelera eskutitz edo *karta* bat sillu ta guzikoa, eta onek geitu zituen jendearen barreak, baiño baita ere alkatearen betozkoa.

—Baiño zer gertatzen da? —zioan Antonek bere buruari—. Badakit —esan zuen—; alkatearen etxeak bi ate ditu, bat aurrean Eliz-kalera begira, eta bestea atzean enparantza edo plaza-txikira begira, eta *karta*-zuloa atzeko atean dago; bai, atzekoan, atzekoan; etzat aztuko, ez; atzekoan, atzekoan eta beti aatzekeo-aaan.

Demontre!

Aditu dezagun oraiñ azkeneko pregoia:

—Nere jendeak: gaurtik aurrera bota-



ko dituzute *korreo*-ko kartak... Alk... atearen... atzeko... zuloan.

Asi ziran txaloka guziak eta Antonek uste izan zuen len egindako okerra ondoegi're zuzendu zuela. «Or, or! Ler egiñ arte!» esaten zion bere buruari txalo-jotzalleakgatik. Gauzak onela esaten dira: argi eta garbi.»

IV

Agauste pavor con presentarse en mi delante en mañana domeka goiz en las dies, para dar algun sastipasion á mi ondra que está abajao en los tres prebones.

A Dios; guarduste muchos años = Mendiando á uno de Enero de 1.000. 8 sientos 90 y siete = Alcalde = Simon Bapoe-ta = Señor Don Anton Zorozkarro = Prebonero.

V

Bigaramonean an zeuden bildurik erriko zortzi gizon (*juradua*) eta alkatea, beren aurrez-aurre Anton, aulki batean jarrita, zutela.

—Anton: zergatik etzenduen esan buzoiazen izena pregoia jotzean? Aztu egin zitzaizun?

—Aztu neri, alkate jauna? Ez, ez; baiño buzoia esan banu, putz-oia edo pozoia usteko zuen jendeak zala, eta orduan nora zijoan beorren ostatuaren pama?

—Arrazoi aundia du Antonek —erantzun zuen *juraduak*.

—Eta, Anton...

—Zer nai du, alkate jauna?

—Zergatik esan dezu, botatzeko *kartak* alkatearen zuloan?

—Ara, jauna: etxea bedorrena da; beragatik, atea ere bai; eta alaxe da ere berorrena atearen zuloa, eta an botatzea, da berorren edo alkatearen zuloan botatzea.

—Arrazoa du Antonek— esan zuen berri ere *juraduak*.

—Eta, Anton...

—Agindu beza, alkate jauna.

—Zergatik esan zenduen ba, *kartak* botatzeko alkatearen atzeko zuloan?

—Berorrek artarako *libertadea* eman ziralako.

—Nik? *En el onbre del Padre!*...

—Bai, jauna; ezan zidan berorrek, lenengo pregoia egiteko euskeraz; bigarrena, erderaz; eta irugarrena, neronek nai nuen bezela. Alaxe bada nai izan nuen.

—Arrazoi aundia baiño're aundiagoa du Antonek— esan zuen *Juraduak*; eta asi zan zurrumurru bat, obe izango zala An-

ton alkate jartzea. Alkateak igarri zion, eta guziak beldurtzeko, zut-zutik jarrita, deadar egin zuen: «*Abajo errebolusion!*» Baiño alperrik zan; zurrumurruak geroago ta indar geiago artzen zuen, eta orduan artu zuen alkateak beste asmo bat. Ekarri zuen berak zeuden lekura zagi bat ardo, eta esan zuen: «Jaunak, egin dezagun abroka». Eta Antonek erantzun zuen:

Egin dezagun abroka,
Naiz-ta gero joan alboka,
Edo bestela arrolka,
Bazterrak or-emen joka.


Goiz alderaiño iraun zuen batzar artako abrokak, eta egiaz alboka, arroka bazterjoka, eta barrukoak botaka joan bear izan zuten beren etxetara, bideetan seiñale edo ezagungarriak utziaz.

Bigaramonean atsoak zer-esan asko zebiltzen batzar onen gaiñean. Bazebiltzen ere ixilka-mixilka batak besteari esanez beste zerbait, baiño iñori ez esateko.

Laster jakin zan erri guztian. Batzarra egin zan gizategiko leioak idikitzera joan zanean neskamea, arkitu zituen mai-pean bi gizon: alkatea ta prégonaria.

P. M.

1899'ko Urtarrillaren 10'ean.
"Euskalzale" 1899, Urtarrilla, 12.



P.M.Urruzuno elgoibartarraren ipuia.

ORIXEREN BERTSOAK

Nikolas Ormaetxea "Orixe" jaio zela, ehun urte bete dira arestian. Mendeurrena medio, guk ere omenalditxo bat eskaini nahi diogu, zuei bertso sorta hau oparituz.



Il naiago dut, batera,
bizi gelditu, bestera;
zer gerta ledin ikusi-naia
onezko bada, bide da;
gaitzez baledi, betor Erio,
onez bada, biziera.

(Ixiltasuna, ixil-ondo)



NIKOLAS ORMAETXEA
(1988 - 1961)

Eguzkiak batera
txoria xintaz atera;
garoa lurrin biur dediño
elkarren lagun gera.
Bainan oberik entzuteko
irtengo naiz oianera.

(Ixiltasuna, ixil-aurre)

Argi urratsean ba noa mendira.
Gainetan Egoa, beetan geldi da:
mendiak garbi ta bertan ager dira.

(Lau urtaroak nere begietan)

Eserita dago indio beltzeran, an jaio ta bizi,
argiz aseago ni baiñon; ark ere zerbait nai ikasi.
Lepoa makurtuz, galdez ari zaio bere kitarrari
beti gauza bera, baina beti berri.

(Bolibi'ko zabaldian)

HAMAR MINUTUKO "EGURRA" GORPUTZARI


Aurreko aldizkarian hamar minututako ariketa sorta bat aurkeztu genuen eta oraingo honetan beste hainbeste egingo dugu. Ariketa sail hau ere hamar minututan edo egiteko da. Beraz, hortxe dituzu aukeran bi sorta ezberdin eta, nahi izanez gero, hemendik batzu hartu eta handik beste batzu eta zeuen gustoko beste sorta bat osa ezazue.



Postura honetan izterren aurrekaldeko muskuluak lanean sentituko dituzu eta korixe da, hain zuzen, mugimendu honen helburua. (Minutuerdiz eutsi behar zaio postura honi).




Postura honetan orkatilak eta hankaren atzeko partea lan egiten dute. Bitartean bizkarrak tente egon behar du, okertu gabe. (Hanka bakoitzarekin hogei segundoz egin behar duzu lan).



Poliki-poliki makurtu behar duzu, irudian ikusten duzun postura hori hartu arte. Belaunek piska bat okertuta egon behar dute. Mugimendu honetan oso garrantzizkoa da kontzentrazioa. Lanean ari diren muskulu horietan pentsatu behar duzu bitartean eta ikusiko duzu nola lasaitzen zaizun burua ere. Ez da gehiegikeriarik egin behar; lehenengo egunetan eskuakin zorua ukitzen ez baduzu, lasai egon, denborarekin ailegatuko zara eta. (Hogei segundoz).



Postura honetan batez ere izterren aurreko partea lan egingo du. Eta baita belaunek ere. Hain zuzen, belaunak indartzeko da ona. (Hogei segundoz hanka bakoitza).




Irudian ikusten den bezala, ezkerreko hankak tira egin behar dio eskuinekoari. Gerriak tente egon behar, du, gorputza aurrera bota gabe. (Zortzi segundoz alde batera eta beste zortzi bestera).




Gerrira pareta aldera botatzen baduzu, orkatila eta hankaren atzeko aldea lanean sentituko dituzu. Atzekaldeko hankak zuzen-zuzen egon behar du eta ez ezazu orpoa lurretik altxa. (Hogeita bost segundoz hanka bakoitzarekin).




Sorbalda eta besoaren goiko parte erlajatzeko da egokia mugimendu hau. (Beso bakoitzarekin hamar segundoz).




Horrelako postura hartzeko, edozein ate, oso zabala ez bada, ona da. Gorputza aurrera bota behar duzu eta okotza barrura sartu. (Hogeita hamar segundoz).




Beharbada postura hau errazegia da zuretzat. Orduan, saia zaitetz besoak gora altxatzen. Bularrak kanpoaldera aterata behar du eta okotzak bular aldera egon behar du. (Hamar segundoz).




Mugimendu honetan, izterondoak behealdera indarrean mantendu behar dituzu. Izter eta izterondoetako muskuluak indartzeko da aproposa ariketa hau. (Hogeitasegundoz hanka batekin eta beste hogeitasegundoz bestearekin).



Hemen bizkarraren atzeko parteak eta besoetako atzeko aldeak lan egingo dute. Belaunek ez dute zuzen egon behar, piska bat okertuta baizik. Eskuak heldulekuz aldatzea komeni da, batzutan gorago, besteetan behe-rago; horrela alderdi horietako muskulu guztiek lan egingo dute. (Guztira hamabost segundoz).



Hankak erlajatzeko postura da. Bestela ere, gorputz osoak hartzen du deskantsua. (Bi-hiru minutuz).



MAKINA-HERRAMIENTA
ESKOLAREN PROIEKTUA
PREST ELGOIBARREN

Elgoibar, Makina-Erremintaren hiriburu

Makina-Erreminta Eskola hau Elgoibarren kokatzeak badu arrazoirik. Zerbaitek esanguratsu bihurtzen badu herri honetako industria, hori Makina-Erremintaren produkzioa da. Sail honek, lehenengo pausoak mendearen hasieran eman zituen, eta gaur egun Estatuko enpresa guztien % 15 a eta lanpostuen % 25 a kokatzen da Elgoibarren.

Proiektu honen garrantziak, erakunde ezberdinetako arduradunen arreta eta interesa sortarazi du. Elgoibarko Makina-Erremintako enpresek 260 milioi eskainiz parte hartuko dute Instituto berri honen eraikuntzan. Erakunde publikoek ere dirulaguntza garrantzitsuak eskainiko dituzte. Eusko Jaurlaritzak, Lan eta Hezkuntza sailen bitartez, 370 milioi pezeta emango ditu; Gipuzkoako Foru Aldundiak 100 milioi; eta azkenik, Elgoibarko Udalak 50 milioi emateaz ez ezik, Eskola eraikiko den luraren erosketaz arduratuko da.

Erakunde bakoitzari, Institutoaren eraikuntzaren zati bat egokitu zaio. Horrela, Foru Aldundiak teknologia berria eskainiko du; Elgoibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Lan saila, edifizioaren eraikuntzaz arduratuko dira; eta azkenik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila eta inguruko enpresek, ikasleen prestakuntzarako materiala eta makina berriak eskainiz parte hartuko dute proiektuan.

Instalakuntza berriak

Ikasleen prestakuntza teknikorako Makina-Erreminta Institutoa, 40.000 metro karratutako azalera batetan kokatuko da, Elgoibarko Lanbide Eskolaren atzekaldean dauden lurretan.

Ikasleen prestakuntza teknikoaz arduratuko den Makina-Erreminta Instituto bat sortzeko asmotan, Elgoibarko Lanbide Eskolako ardura-dunek zenbait elkarrizketa izan dituzte azken asteotan Gobernu eta herriko eta inguruko enpresa ezberdinekin.


Makina-Erreminta Instituto berri hau, datorren hamarkadaren lehenengo urteetarako egon daiteke prest. Hortaz, 1.992 urtean, Europako mugak zabalduko diren unean, Elgoibar-

ko eta inguruko Makina-Erreminta industria Kontinenteko Estatu garatuenekin lehiatzeko prest egongo da.

Proiektuaren aurrekontua 843 milioi pezeta-takoa da. Inbertsio handi honek, Elgoibarko eta Estatuko Makina-Erreminta sailaren etorkizunerako Eskola honek izango duen garrantzia begi bistan uzten du.

Oraindik lantze prozesuan dagoen Instituto berri honen ideiak, hiru helburu nagusi dituela esan genezake. Alde batetik, Metal adarreko eta konkretuki Makina-Erremintako ikasketak gaurkotu; bestetik, enpresen prestakuntza eskaria asetu, eta azkenik, eskola eta enpresen artean erlazio sendo bat posible egingo duen egitura iraunkor bar sortzea. Eskola eta enpresen arteko erlazioa zihurtatzea proiektu honen ardatz nagusienetarikoa bat da. Sail honetako enpresariak garrantzi handikotzat jotzen dute goi-mailako teknikarien prestakuntza, zabalpen eta garapeneko garai hauetan, teknikari eza Makina-Erremintaren hazkunderako oztopo handia bait da.

Instituto honek burutu nahi izango duen beste helburu aipagarri bat, ikaslearen eta lan munduaren arteko erlazioa sendotzea izango da.





Euskal langileek egindako oinpeko tornua.

Era berean, instalakuntzak guztiz berrizaleak izanik, bertan goi-mailako teknologia erabiliko da, ahal den neurrian, Euskalerrian egiten den teknologia bultzatzen saiatuko delarik.

Guztiz berri eta modernoak diren instalakuntzak, hiru edifizio ezberdinetan banatuak izango dira. Solairu industrialak, 1.500 metro karratutako azalera beteko du, eta bertan, entrepresek makina berriak aurkeztuko dituzte. Era berean, Administrazioarako egokitutako eraikuntzak bi solairu izango ditu, eta azkenik, hirugarren erakintza batean ikasleen gelak kokatuko dira. Hiru edifizio edo moduloak, guztiz independenteak izango dira, etorkizunean egin daitezkeen edozein zabalpenerako prestatuak.

Dudarik gabe, Makina-Erreminta Eskola berri honek, aldaketa sakona suposatuko du orain arte Elgoibarren erabili den Lanbide hezikuntza sisteman.

Urteetan zehar gure industrian hain garrantzitsua izan den Makina-erreminta sailak, ezin dezake teknologia eta produkzio bide berrien trena gal. Estatuko eta Europako merkatuetan benetako indarra eta konkurrentzia izan dezan, sektore honek beldurrik gabe jo behar du aurrera, eta proiektuan dagoen Elgoibarko Makina-Erreminta Eskola honek paper garrantzitsua joka dezake desafio berriaren aurrean.



HOROSKOPO DIETETIKOA


*Zorabio, burukominak eta neuralgiak dira gaixotasun nagusienak, zeren eta Ariestarren gorputz alde ahulenak, burua eta bizkar-burumuinaren sistemak dira.

Jatekoak: Sustraidun barazkiak, ogi integrala, sagarrak eta marrubiak, arroz integrala. Gatza, erregimenekoa eta oso gutxi.

Baztertu beharrekoak: Koipedun hargia eta batez ere txerrikiak. Azukre zuria eta kontserbetako fruituen zukuak.



TAURO



*Eztarriko gaixotasunak erraz harrapatzen dituzte. Aфонia, anginak, laringitis eta horrelakoekiko joera dute.

Jatekoak: Era guztietako entsaladak, lekak, erremolatxa, tipula, berakatza, perrexila, intxaurrak, laranjak, pomeloak eta oso egokiak dira zereal guztiak, hala nola arroza, garia, e.a.


Baztertu beharrekoak: Aingiriak, angulak, itsasaingiria eta familiakoak. Txerrikiak eta haragia debekatuak dituzte. Agur esan tabako eta alkoholari.

*Pleuresia, birika eta bronkioetako gaixotasunik eta batez ere asmarik ez izateko, geminis batek arnas sistema zaindu behar du.

Jatekoak: Esparragoak, aguakatea, espinakak, azenarioak, era guztietako fruitu helduak eta zereal integralak. Limoi ur asko edatea komeni zaie eta asteen behin "fruitu eguna" egin behar dute.

Baztertu beharrekoak: Txerrikiak. Azukre zuria eta edozein fekula, batez ere babarrunak, laranjak eta garbantzoak.

GEMINIS



*Arazorik latzenak urdailekoak izaten dira Kantzarrentzat, horregatik nahiko puzkartiak izateaz gain, jan ondoren bihotz-errea, hatsa eta logurea izaten dute. Eta gainera pertsona urduria bada, ultzera sortzeko arriskurik ere bada.

Jatekoak: Pasta integralak, plantxan erretako haragia, ikuiluko hegaztiak, esnea, gazta eta bestelako esnekiak, arrain zurriak eta sustraidun barazkiak.

Baztertu beharrekoak: Ogi zuria, azukrea, oskoldunak, koipeak eta gasa edo azukrea duten edariak.


CANCER



*Leotarrek bihotza eta zirkulazioa zaindu beharko dute.

Jatekoak: Arto edota ekilore olioia, espinakak, porruak eta azenarioak. Fruituen artean piña, gereziak, marrubiak eta gaztainak oso osasungarriak dira. Esne gaingabetua, haragi gutxi eta jatekotan lapikokoa.

Baztertu beharrekoak: Lehendabizi alkohola. Txerrikiak eta ehiziak, koipedun haragiak eta saldak, gurina eta batipat frititurak.



*Hesteak zaindu beharko dituzte. Hauak ere puzkartiak dira eta idorreria izaten dute sarritan.

Jatekoak: Ogi integrala, lekak, idarrak eta zerealak. Fruituak oso helduak.

Baztertu beharrekoak: Koipedun haragiak, kontserbak, txerrikiak, gasdun ura, eta orokorrean edari oso hotzak alde batera utzi beharko dituzte.

*Ezaugarri honek eragina du giltzurrunetan eta bizkar hezuraren beheko aldean. Burmuinean ere zerikusi izan dezake. Libratarrak nefropatiak izateko arriskua dute. Beraz, nahiezak aldendu eta indartzeko janari arauak ondo zaintzea komeni zaie.

Jatekoak: Koiperik gabeko haragia, azak, espinakak, azenarioa, idar freskuak, entsaladak, tomateak, patatak eta esparragoak. Arrainen artean, legatza eta amurruak. Arroza sarritan jan dezakete. Fruitueri dagokionez, marrubiak, gereziak, piña, meloia, mahatsa, okaranak, sagarrak eta muxikak. Azukre gutxi, ezitia eta olio bejetala.

Baztertu beharrekoak: Kontserbak, txerrikiak, gazta gogorak, oskoldunak, margarina, mahaspasak, urrak, garagardoa, ardoa, kontserbetako fruituen zukuak eta gasdun edariak.



*Sexu organu eta kartilagoan eragina du. Eskorpiotarrek arnasa hartzerakoan eragozpenak izaten dituzte musu-hezur okerragatik.

Jatekoak: Arroz integrala, esnea eta esnekiak, yogurra, gazta, gatzatza, arraultzeak, koiperik gabeko haragia. Azak, lekak, letxugak, patatak eta tomateak. Plantxan erreta edo lurrunean egositako arraia, legatz eta itsasapora mugatzea komeni zaie. Sagarra jatea aholkatzen zaie.

Baztertu beharrekoak: Piperra, pepintxoak, espeziak eta saltsak. Oskoldunak eta mariskoa, keetutako haragiak, pikatxak eta batipat alkoholdun edariak. Gatza gutxi eta errejimenekoa hobe, eta limoia entsaladentzat.



*Sagitariotarren gorputz zatirik ahulena gibela da eta baita ere loditasunerako joera dute. Gibelesko gaixotasunak aldentzeko nahitaezkoak dira janari egokiak.

Jatekoak: Haragi zuriak (oilaskoa edo txahala) baina gehiegi jan gabe. Arrain zuriak (legatza eta itsasapoa). Espinakak, letxugak, lekak, azenarioak, kardoak eta endibiak. Aholkatzen zaien fruituak: laranjak, gereziak, okaranak, marrubiak, pomeloa, membriloa eta mahatsa. Arto olioak. Limoi ur epelak azukrez.

Baztertu beharrekoak: Txerrikiak eta koipedun haragiak. Alkohola. Gatz gehiegi. Gazta eta esnea. Frijiturak. Gurina eta margarina.



*Zahartzaroaren ezaugarri da. Haurtzarotik kalzio-fijazio txarrerako joera dute eta horren ondorioz, hezur-deformazioak izan ditzakete. Alergia eta ezemekin ere kontu izan behar dute.

Jatekoak: Yogurrak, esnea eta gatzatza, barazkiak, urrak eta alendrak, marmelada eta konfiturak, eta errefinatugabeko ezti eta azukrea.

Baztertu beharrekoak: Gibela. Arrainen artean sardinak, antxoak, salmoia, makailoa eta amurraina kaltegarriak dira. Ehiziak ere ez dira egokiak. Txerrikirik ez eta haragia jatekoetan arkumea, baina gutxi.



*Odoleko gaixotasunak dira latzenak eta ondorioz, globulo arazoak izan ditzakete. Erreumatismo eta anemiarako joera dute eta baita ere barizeak izateko arriskua.

Jatekoak: Porruak, tomateak, alkatxofak, azak, arroza. Ondo heldutako fruituak, hala nola gereziak, piña, marrubiak eta sagarrak. Zerealak eta ekilore olioak.

Baztertu beharrekoak: Haragia eta batipat txerria. Arrain koietsuen artean mihiarraina bakarrik jan dezakete. Espeziarik ez eta jatekoetan gatz gutxi.



*Intoxikazio eta kontajioetarako joera dute, eta asmarekin ere kontu izan behar dute. Oin eta orkatilak hausteko edota esginzeak egiteko arriskua dute.

Jatekoak: Limoia entsaladetarako. Haragi zuria: txahala edo oilaskoa. Arroza, artoa eta garia onak dira. Azenarioak, letxugak, esparragoak, lekak, atxikoria, perrexila, berakatzak eta kipulak. Arrain zuria bakarrik. Esnea eta yogurrak gaingabeak. Egunero bi litro ur mineral edan behar dute jatordue-tatik kanpo.

Baztertu beharrekoak: Haragi gorriak, gurina, azukrea, txokolatea eta pastelak, ogi zuria, gasdun edariak, eskoldunak eta mariskoa.



????

NEUROTIKOA AL ZARA?

Gure garai honetako gaitza omen da neurosis. Gaurko bizikera omen da horren errudun eta sortzaile. Askotan estutu egiten gara, larritu, berotu, tristetu, haserretu. Ikus orain neurotikoa zaren ala ez.

1. Trena hartu behar izaten duzu, inguruko herri batera lanera joaten zara eta
 - a) Ordua baino ordubete lehenago heltzen zara geltokira
 - b) Berrogeita bost bat minutu lehenago
 - c) Ordu erdi bat lehenago
 - d) Doi-doi heltzen zara ordurako
2. Abioian sartu eta berehala jarriko dela martxan esan du azafatak
 - a) Pixka bat estutu egin zara.
 - b) Lasai eta oso gustora zaude.
 - c) Aitaren egin eta urduri Jainkoaren eskuetan jarri duzu zeure burua
 - d) Ez zara abioian sartzeko gauza
3. Etxean zaudelarik, sagutxo bat azaldu da. Orduan
 - a) Izututa salto egin eta laguntza eskatu duzu.
 - b) Sagutera erostea erabaki duzu
 - c) Jaten eman diozu sagutxoari
 - d) Etxea saltzea erabaki duzu
4. Bilera batean zaude eta jende asko dago bertan. Halako batean

- jendea isildu egin da. Isilune horretan
- a) Ez zara ezer esatera ausartu
 - b) Edozein txorakeria esan duzu
 - c) Isilik eta lasai jarraitu duzu
 - d) Zerbait esateko aprobetxatu duzu
5. Txikia zinenean
 - a) Elizara joaten zinen eta maiz konfesatu
 - b) Elizara joaten zinen eta gutxitan konfesatu
 - c) Elizara gutxi joaten zinen eta beti konfesatu
 - d) Ez zinen behin ere elizara joaten
 6. Etxetik ateratzean.
 - a) Dena behar den bezala uztea gustatzen zaizu: argia, gasa, leihoak...
 - b) Noizean behin argia piztuta uzten duzu
 - c) Ez duzu butanoaren giltza inoiz ixten
 - d) Egun batzutarako kanpora zoazenean bakarrik saiatzen zara gauzak behar bezala uzten

7. Burukomina izaten duzu
 - a) Askotan
 - b) Gutxitan
 - c) Noizean behin
 - d) Inoiz ez
8. Kanpandorre batera igo eta
 - a) Ez zara behera begiratzera ausartzen
 - b) Zeure burua behera botatzeko gogoia sentitzen duzu



- c) Kalean bezain lasai zaude goian
- d) Ez zara kanpandorre batera igotzeko gauza

- b) Aski txukuna
- c) Narrasa
- d) Guztiz narrasa

9. Oheratzerakoan

12. Supermerkatu handi batean jen-

TXITXILIBAKIO-TXIKI



5. mailako ikasle elgoibartarrek egina

- 1. aldea -

-1-

izugarria dago
ustora sartu zara, hori gustuzen zaizu eta
errigorrez sartu zara
urtu zara, baina zorabiatu in zara
z zara sartzen ausartu

tzio-zaletasuna.
kanponak edo seiluak biltzea istatzen zaizu.
er bait kolekzionatu izan zu, baina ezer askorik ez dikitari kolekzionatzen ari zinen, baina aspaldi ez z duzu inoiz ezer kolekzio-itu

Zeharo neurotikoa zara eta on baten premian zaude. zara eta ezin zara zuloak

a) 35 puntuak gora


7.	a) 0	b) 1	c) 2
6.	a) 3	b) 1	c) 0
5.	a) 3	b) 1	c) 2
4.	a) 3	b) 2	c) 0
3.	a) 2	b) 1	c) 0
2.	a) 1	b) 0	c) 3
1.	a) 3	b) 2	c) 1

TEST PSIKOLOGIKOA

????

Gure garai honetako horren errudun eta sortza haserretu. Ikus orain neu

1. Trena hartu behar iza inguruko herri bater joaten zara eta
 - a) Ordua baino ordu nago heltzen zara
 - b) Berrogeita bost bat lehenago
 - c) Ordu erdi bat lehenago
 - d) Doi-doi heltzen zara
2. Abioian sartu eta berehala delat martxan esan
 - a) Pixka bat estutu egin
 - b) Lasai eta oso gustoko
 - c) Aitaren egin eta urkoaren eskuetan jaure zeure burua
 - d) Ez zara abioian sartze
3. Etxean zaudelarik, sagazaldu da. Orduan
 - a) Izututa salto egin eta eskatu duzu.
 - b) Sagutera erostearen
 - c) Jaten eman diozu sagari
 - d) Etxea saltzea erabaki
4. Bilera batean zaude asko dago bertan. Halak



- c) Kalean bezain lasai zaude goian.
- d) Ez zara kanpandorre batera igotzeko gauza

- b) Aski txukuna
- c) Narrasa
- d) Guztiz narrasa

9. Oheratzerakoan

12. Supermerkatu handi batean jen-

Bertsokak

Doinua: Maritxu Nera zara

1. Gure eskolan dago hamaita pailasa
Gure Maritxu dugu erabat Maritxu
Ikasleak ditugu apurto bat zozto
fida ere bai daria nahiko bondadoso
2. Gure eskola dugu beretan adera bertara jotzen eman dit platera laguntza bat bertan ditut moko okera gainera ikasleak da nahiko alferria.
3. Gure eskolat dola hamaita kompotxo hemen pailasa dugu apurto omigutxo Eskolaren gabezia bastantze edertxo maritxu eta portuak iaan tu! potoltxo.

izugarria dago ustora sartu zara, hori gustuzen zaizu eta errigorrez sartu zara sartu zara, baina zorabiatu in zara z zara sartzen ausartu

zio-zaletasuna. kanponak edo seiluak biltzea estatzen zaizu. er bait kolekzionatu izan zu, baina ezer askorik ez diktan kolekzionatzen ari- en zinen, baina aspaldi ez z duzu inoiz ezer kolekzio- tu

Zeharo neuritako zara on baten premian zaude. zara eta ezin zara zuloak

a) 35 puntu gora

- | | | | |
|----|------|------|------|
| 1. | a) 3 | b) 2 | c) 1 |
| 2. | a) 1 | b) 0 | c) 3 |
| 3. | a) 2 | b) 1 | c) 0 |
| 4. | a) 3 | b) 2 | c) 0 |
| 5. | a) 3 | b) 1 | c) 2 |
| 6. | a) 3 | b) 1 | c) 0 |
| 7. | a) 0 | b) 1 | c) 2 |

TEST PSIKOLOGIKOA

????

Gure garai honetako horren errudun eta sortza haserretu. Ikus orain neu

1. Trena hartu behar izan inguruko herri bater joaten zara eta
 - a) Ordua baino ordu nago heltzen zara
 - b) Berrogeita bost bat lehenago
 - c) Ordu erdi bat lehenago
 - d) **Doi-doi** heltzen zara
2. Abioian sartu eta bereko dela martxan esan tak
 - a) Pixka bat estutu egin
 - b) Lasai eta oso gustorik
 - c) Aitarenekin egin eta urkoaren eskuetan jarri zeure burua
 - d) Ez zara abioian sartzen
3. Etxean zaudelarik, sagaz azaldu da. Orduan
 - a) Izututa salto egin eta eskatu duzu.
 - b) **Sagutera** erosteak erabali
 - c) Jaten eman diozu sagari
 - d) Etxea saltzea erabaki
4. Bilera batean zaude asko dago bertan. Halan

DSMARIZUNAK

"Baserrian dago kaiolan batetan baina ez da txoria gure animalia.

Berri tentak

isaba kaburra,

ile peun peuna eta

korrika abila

baina ez da erbia.

✓ Haz zutez asmatzen

niki esan baina Pehen" (Urtzia)

Goizean ezmatzen nau

eta ez da nire ama,

urrutik entzuen da

eta ez da kampaia

kuku eta ruku


Zein den esan dizut (Ailarra)

- c) Kanean bezain lasai zaude goian
- d) Ez zara kanpandorre batera igotzeko gauza

- b) Aski txukuna
- c) Narrasa
- d) Guztiz narrasa

9. Oheratzerakoan

12. Supermerkatu handi batean jen-



izugarria dago ustora sartu zara, hori gus-tzen zaizu eta errigorrez sartu zara urtu zara, baina zorabiatu in zara z zara sartzen ausartu

zio-zaletasuna. Kanponak edo seiluak biltzea tstatzen zaizu. erbait kolekzionatu izan azu, baina ezer askorik ez dkitan kolekzionatzen ari-en zinen, baina aspaldi ez z duzu inoiz ezer kolekzio-tu

bat baima handiagoak gorria
bi baima txikiagoak berdea
bi baima handiagoak horia.

Zeharo neurotikoa zara on baten premian zaude. zara eta ezin zara zultok

a) 35 puntu gora


1.	a) 3	b) 2	c) 1
2.	a) 1	b) 0	c) 3
3.	a) 2	b) 1	c) 0
4.	a) 3	b) 2	c) 0
5.	a) 3	b) 1	c) 2
6.	a) 3	b) 1	c) 0
7.	a) 0	b) 1	c) 2

TEST PSIKOLOGIKOA

????

Gure garai honetako horren errudun eta sortza haserretu. Ikus orain neu

1. Trena hartu behar iza inguruko herri bater joaten zara eta
 - a) Ordua baino ordu nago heltzen zara
 - b) Berrogeita bost bat lehenago
 - c) Ordu erdi bat lehenago
 - d) Doi-doi heltzen zara
2. Abioian sartu eta bereko dela martxan esan tak
 - a) Pixka bat estutu egin
 - b) Lasai eta oso gustor
 - c) Aitaren egin eta urkoaren eskuetan ja zeure burua
 - d) Ez zara abioian sartze
3. Etxean zaudelarik, sag azaldu da. Orduan
 - a) Izututa salto egin eta eskatu duzu.
 - b) Sagutera erostea erab
 - c) Jaten eman diozu se
 - d) Etxea saltzea erabak
4. Bilera batean zaude asko dago bertan. Halal



BALEAKI HENDIAN



FRIDA

Egun batean 7garren eta 5garren mailakoak San Pedro mendira joan ginen. Bidean polizia geratu zen eta geditu ginen polizia joan arte.

San Pedro-ra heldu ginen eta atak zeuden mendian orduan sartu ginen. 7garre mailakoak futboleko jolasten ari ziren, nik orduan oso panda bat ikusi nuen.

Denak irten ginen eta Kuadro bat ikusi genuen, kuadroan jendea eta oso panda bat zeuden. Oso panda hura mugitzen zen eta mingana ateratzen zuen.

elk dirua nuen eta emakume bat jaltzua zen ala ez astertzen hasi zen, halako batean oso panda bat jolka egin zen jolka arrainak jaten zituen eta gero balea egin zen. Itsaso bat agertu zen eta bale haundi eta txiki bat (agertu) bere bai, orduan baleak bi baleekin joan zen itsasora.








- c) Kanean bezain lasai zaude goian
- d) Ez zara kanpandorre batera igotzeko gauza

- b) Aski txukuna
- c) Narrasa
- d) Guztiz narrasa

9. Oheratzerakoan

12. Supermerkatu handi batean jen-

TELEBIZ TAKO ZAIIOAK



izugarria dago ustora sartu zara, hori gus-tzen zaizu eta errigorrez sartu zara urtu zara, baina zorabiatu in zara z zara sartzen ausartu zio-zaletasuna. kanponak edo seiluak biltzea tstatzen zaizu. erbait kolekzionatu izan azu, baina ezer askorik ez ikitan kolekzionatzen ari- en zinen, baina aspaldi ez r duzu inoiz ezer kolekzio- tu

Zeharo neurtikoa zara on baten premian zaude. zara eta ezin zara zuloik

a) 35 puntuk gora

1.	a) 3	b) 2	c) 1
2.	a) 1	b) 0	c) 3
3.	a) 2	b) 1	c) 0
4.	a) 3	b) 2	c) 0
5.	a) 3	b) 1	c) 2
6.	a) 3	b) 1	c) 0
7.	a) 0	b) 1	c) 2

TEST PSIKOLOGIKOA

????

Gure garai honetako horren errudun eta sortza haserretu. Ikus orain neu

1. Trena hartu behar izan inguruko herri bater joaten zara eta
 - a) Ordua baino orduko nago heltzen zara
 - b) Berrogeita bost bat lehenago
 - c) Ordu erdi bat lehenago
 - d) Doi-doi heltzen zara
2. Abioian sartu eta bereko dela martxan esan
 - a) Pixka bat estutu egin
 - b) Lasai eta oso gustor
 - c) Aitarekin egin eta urkoaren eskuetan ja zeure burua
 - d) Ez zara abioian sartze
3. Etxean zaudelarik, sag azaldu da. Orduan
 - a) Izututa salto egin eta eskatu duzu.
 - b) Sagutera erostea erak
 - c) Jaten eman diozu se
 - d) Etxea saltzea erabak
4. Bilera batean zaude asko dago bertan. Halak

Erroterko zuzendariak esan zion ero bati:

- Ni kampaia moa. Laster etorriko naiz. Baina zaiatu zaiten bitartean horretan ero denak isilik eta pakean egon daitezzen.

Zuzendaria etorri zenean erroterean ez zion txintik ere entzuten.

Eta ero denak lurrean zuden luze-luze etanda.

Harriturik, galdetu zion orduan ero arduradunari:

- Nola lotu duzu isiltasun hau?

- Oso erraz. Lurrean marra bat egin dut lehenengo.

Marra horren azpitik pasatzen denari txikle bat emango diadala esan diet. Orduan, denak, buruaz lurrea jo dute eta lo geratu dira.

- c) Klean bezain lasai zaude goian
- d) Ez zara kanpandorre batera igotzeko gauza


- b) Aski txukuna
- c) Narrasa
- d) Guztiz narrasa

9. Oheratzerakoan

12. Supermerkatu handi batean jen-

Beteiko taula honetako zerbaki bakaitzari dagokion balioa adierazten du.
 Asmatu ondorengo zerbaki-sarta bakaitzari dagokion esanahia.

x	4	5	6
1	A	K	T
2	B	L	*
3	D	M	U
4	E	*	*
5	F	N	*
6	G	O	X
7	H	P	Y
8	I	R	Z
9	J	S	*



izugarria dago
 ustora sartu zara, hori gus-
 tzen zaizu eta
 errigorrez sartu zara
 sartu zara, baina zorabiatu
 in zara
 z zara sartzen ausartu
 zio-zaletasuna.
 kanponak edo seiluak biltzea
 tstatzen zaizu.
 erbait kolekzionatu izan
 zu, baina ezer askorik ez
 dkitan kolekzionatzen ari-
 en zinen, baina aspaldi ez
 duzu inoiz ezer kolekzio-
 tu

Zeharo neurotikoa zara
 on baten premian zaude.
 zara eta ezin zara zuloitik

a) 35 puntu gora

1. a) 3 b) 2 c) 1
2. a) 1 b) 0 c) 3
3. a) 2 b) 1 c) 0
4. a) 3 b) 2 c) 0
5. a) 3 b) 1 c) 2
6. a) 3 b) 1 c) 0
7. a) 0 b) 1 c) 2

????

Gure garai honetako horren errudun eta sortza haserretu. Ikus orain neu

1. Trena hartu behar izan inguruko herri bater joaten zara eta
 - a) Ordua baino ordu nago heltzen zara
 - b) Berrogeita bost bat lehenago
 - c) Ordu erdi bat lehenago
 - d) Doi-doi heltzen zara
2. Abioian sartu eta bereko dela martxan esan tak
 - a) Pixka bat estutu egin
 - b) Lasai eta oso gustor
 - c) Aitarenekin egin eta urkoaren eskuetan ja zeure burua
 - d) Ez zara abioian sartze
3. Etxean zaudelarik, sagazaldu da. Orduan
 - a) Izututa salto egin eta eskatu duzu.
 - b) Sagutera erostearen erak
 - c) Jaten eman diozu sag
 - d) Etxea saltzea erabaki
4. Bilera batean zaude asko dago bertan. Halak

Jaimito eta apairak

Jaimito bizikletarekin doala apairak esaten dio:

apairak: Gaur ez duzu elisara

joan behar?

Jaimitok: Baten baina, nork zainduko du bizikleta?

apairak: ba Espiritu Santuak.

Eta Jaimito apairarekin elisara sartzen da:

apairak: Ea Jaimito! Kasi errezatzen.

Jaimitok: Aitarenekin, Semearnekin, Amen.

apairak: Eta Espiritu Santua?

Jaimitok: Nire bizikleta zaitzen arida.


Unai Urkudun

- c) Kanean bezain lasai zaude goian
- d) Ez zara kanpandorre batera igotzeko gauza

- b) Aski txukuna
- c) Narrasa
- d) Guztiz narrasa


9. Oheratzerakoan

12. Supermerkatu handi batean jen-




izugarria dago ustora sartu zara, hori gustuzen zaizu eta errigorrez sartu zara urtu zara, baina zorabiatu in zara z zara sartzen ausartu

kzio-zaletasuna. kanponak edo seiluak biltzea istatzen zaizu. er bait kolekzionatu izan zu, baina ezer askorik ez dkitan kolekzionatzen ari- en zinen, baina aspaldi ez z duzu inoiz ezer kolekzio- itu



Zeharo neurotikoa zara on baten premian zaude. zara eta ezin zara zultok

a) 35 puntuk gora



- 1. a) 3 b) 2 c) 1
- 2. a) 1 b) 0 c) 3
- 3. a) 2 b) 1 c) 0
- 4. a) 3 b) 2 c) 0
- 5. a) 3 b) 1 c) 2
- 6. a) 3 b) 1 c) 0
- 7. a) 0 b) 1 c) 2


TEST PSIKOLOGIKOA

????

Gure garai honetako horren errudun eta sortza haserretu. Ikus orain neu

1. Trena hartu behar iza inguruko herri bater joaten zara eta
 - a) Ordua baino ordu nago heltzen zara
 - b) Berrogeita bost bat lehenago
 - c) Ordu erdi bat lehenago
 - d) Doi-doi heltzen zara
2. Abioian sartu eta bereko dela martxan esan tak
 - a) Pixka bat estutu egin
 - b) Lasai eta oso gustor
 - c) Aitaren egin eta urkoaren eskuetan ja zeure burua
 - d) Ez zara abioian sartze
3. Etxean zaudelarik, sag azaldu da. Orduan
 - a) Izututa salto egin eta eskatu duzu.
 - b) Sagutera erostea erab
 - c) Jaten eman diozu se
 - d) Etxea saltzea erabak
4. Bilera batean zaude asko dago bertan. Halal





- c) Kanean bezain lasai zaude goian
 - d) Ez zara kanpandorre batera igotzeko gauza
9. Oheratzerakoan
- a) Orduerdia behar duzu arropak txukun-txukun uzteko
 - b) Nolanahi uzten dituzu arropak
 - c) Ez dituzu zapata-lokarriak egundo askatzen
 - d) Nekatua ez bazaude, aski txukun uzten dituzu arropak
10. Sexualitatea
- a) Beharrezkotzat jotzen duzu
 - b) Arrisku handikoa
 - c) Zikina
 - d) Zoragarria
11. Nolakoa zara zeure eginkizunetan?
- a) Txukunegia
 - b) Aski txukuna
 - c) Narrasa
 - d) Guztiz narrasa
12. Supermerkatu handi batean jendetza izugarria dago
- a) Gustora sartu zara, hori gustatzen zaizu eta
 - b) Derrigorrez sartu zara
 - c) Sartu zara, baina zorabiatu egin zara
 - d) Ez zara sartzen ausartu
13. Kolekzio-zaletasuna.
- a) Txanponak edo seiluak biltzea gustatzen zaizu.
 - b) Zerbait kolekzionatu izan duzu, baina ezer askorik ez
 - c) Txikitik kolekzionatzen ari zinen, baina aspaldi ez
 - d) Ez duzu inoiz ezer kolekzionatu

a) 35 puntuk gora

Zeharo neurotikoa zara eta sendabide patxadan ibili eguneroko gauza aruntetik gabe. Jakin ezazu eromaldi bazu onak direla osasunerako. Zuretzat kalte. Lastima. Jarrai bide horretatik etxi gabe.

hemen gure aholkua: ez zaitzez estutu, eta zure buruaren jabe, inolako urduritasuz zara normala eta orekatua. Beti hotz, beti Zurekin bizitzea ezinezkoa da, hain

SOLUZIOAK

PUNTUAKETA

1.	a) 3	b) 2	c) 1	d) 1
2.	a) 1	b) 0	c) 3	d) 4
3.	a) 2	b) 1	c) 0	d) 3
4.	a) 3	b) 2	c) 0	d) 1
5.	a) 3	b) 1	c) 2	d) 0
6.	a) 3	b) 1	c) 0	d) 2
7.	a) 0	b) 1	c) 2	d) 3
8.	a) 2	b) 3	c) 4	d) 0
9.	a) 2	b) 1	c) 0	d) 3
10.	a) 1	b) 2	c) 3	d) 0
11.	a) 3	b) 2	c) 1	d) 0
12.	a) 3	b) 0	c) 2	d) 1
13.	a) 4	b) 3	c) 1	d) 2

B) 15etik 25era bitartean

Normala zara. Konturatu zara pixka bat neurotikoa zarela, eta onartzen duzu egoera hori. Zenbait gertaerak erasaten dizu txuraz, baina oso guxutian. Hala ere, kontura zaitzez gaisotasunetik hurbil zaudela.

C) 15etik behera

14 GALDERA "EKEKEI" ANTZERKI TALDEARI

"Ekekei" antzeztaldea "Taupada" taldearen zatiketarik sortzen da 1.988. urtean, antzerkiari buruzko planteamendu ezberdinak eta ikusentzulego nagusiarengana heldu nahiak sortzen duen ezadostasunak gainditu nahian.

Hasiera batean, talde honen asmoa "Barneko Misterioa" izeneko obra prestatzea izan zen, baina diru arazoak zirela medio, baztertu egin behar izan zuten eta beste montai sinpleago bat prestatzen hasi, "Ni naiz Kapitan Piloto" antzerki lana. Obra honen lehen emanaldia Azpeitiako Antzerki Topaketetan eskaini zuten eta bigarrena, gure herrian Abenduaren 23 an.

Talde honetako partaideak hobeto ezagutzeko asmoz, beraiekin izandako elkarrizketa bat eskaintzen dizuegu hurrengo lerroetan:

TX.: Mesedez zuen aurkezpena egingo al diguzue ?

EK.: Bai, noski.

Izaskun Arozena, 19 urte, ikaslea.

Xabier Ansola, 33 urte, irakaslea.

Bixente Irusta, 19 urte, ikaslea.

Diana Perez de Albeniz, 19 urte, ikaslea.

Karlos Balseiro, 21 urte, musikalaria.

Iñaki Odriozola, 27 urte, irakaslea.

J.M.Urrutia, "Txotxe", 27 urte, psikologoa.

Mikel Osoro, 27 urte, irakaslea.


Iñaki Ansola, "Txanbo", 32 urte, irakaslea.

TX.: Zergatik aukeratu duzue "Ekekei" izena eta nondik dator.

EK.: Taldeko batek, hiztegi bat hartu eta hitz katxondoak zirela eta, 20-30 hitzeko zerrenda bat egin zuen. Afari bat egin ondoren bi izen geratu ziren azkenetako, "Kalerna" eta "Ekekei". Esanahia hobeto ez esatea hiztegian bait dator.

TX.: Noiz sortu da zuen taldea eta nola?

EK.: Orain dela urtebete, Taupadan zatiketeta bat egon zen eta hortik sortu da taldea. Taupadak, antzerkia umeentzat egingen du eta guk helduentzako antzerkia egin nahi genuen.



TX.: Nori ahazten zaizkio paperak ?

EK.: Estrenoan denoi, batzuei besteei baino gehiago baina orokorki denoi eta orduan inprobisatu egiten dugu. Batzutan, hankasartzen handiagoak izaten dira baina hor dago antzerkiaren magia, hau da, inoiz ez direla bi emanaldi berdin egiten, inspirazioak luzatu, hobetu eta beste egiten ditu emanaldiak. Oraindik, bi emanaldi bakarrik egin ditugu eta hasieran nabar izaten da seguritate falta eta urduritasuna, baina... konponduko da.



TX.: Nola finantzitzen dituzue obrak ?

EK.: Obraren kostua 800-900 mila pezeta-takoa izan da. Diru horretatik 500 mila pezetatako kreditoa eskatu dugu eta falta dena taldeak ipini du. Emanaldien bidez, diru hori berreskuratzea espero dugu.

Lokala, Udaletxeak utzitakoa da, eta txikia gure asmoetarako. Halere, demaseko erabilpena ematen diogu. Tailerra, ekspresio tekniken lantzea, bilerak, e.a. egiten ditugu, baina entsaiu jeneralak egiteko beste lokalen batzutara joan behar izaten dugu, Ikastolako Frontoira, Mekanikako gimnasia eta... ahal den tokira.

TX.: Zein erizpide hartzen duzue kontutuan obra bat egiterakoan, gaia, lantzea...?

EK.: Bada, erizpideak ez dira oso finkatuak, horrek mugak nahiz hedapena ekartzen digu. Gustatzen zaizkigun gaiak aukeratzen ditugu eta hizkuntzaren aukera hasieratik egin dugu, euskara erabiliz komunikaziorako elementu bezala.

Oraingo hau, halere, kasu berezia dugu, Gaztetxeari laguntza emateko eta, hala-ko lantxoak egin nahi genuen eta esku ar-

tean kriston muntaia bihurtu zaigu.

Gaiak taldeak sartzen ditu, guk egiten dugu harotzeria, eszenarioak eta arropen diseinua, material berrien manipulazioa eta lan beraren testua, egituraketa, gidioa, direkzioa... produkzioa.

TX.: Eta humorezko gaiak ?

EK.: Humorea ez dugu deskartatzen, gorpützean daramagu. Baina aukera guztiak kontutan hartzen ditugu, hurrengo obra, adibidez, drama bat izan daiteke. Baina nahiko drama daukagu 850 mila pezeta horiekin.

TX.: Nori zuzendua dago zuen antzerkia ?

EK.: Gehienbat publiko gazteari, bai Gaztetxeko jendeari, bai gazte sentitzen den edozein nagusiri. Gure planteamendua zabala da eta kasu honetan, gai topikoa hartu dugu, Piratena, eta piratak denei iristen zaien pertsonaiak dira. Nori ez zaio gustatu noizbait pirata izatea ? Batzu badaude, eta horiei ez zaie gustatu gure antzerkia.

TX.: Milionario bihurtzeko elkartu al zarete antzerki lanean ?

EK.: Hemendik sei hilabetetara Miamira goaz... baina ihesi. Nahiko txarra da egoera, ez bakarrik guretzat. Lehen, emanaldiak herriko talde kulturek, Udalletxeak, e.a. antolatzen zituzten. Orain, ordea, Diputazioak eta Jaurlaritzaren esku uzten da gai hori, bestelako zirkuito deszentralizatuak indarra galduz, eta diru hori lortzeko zailtasun handia izaten da, batez ere antzerki politikarik ez dagoelako eta diru asko erizpide jakinik gabe banatzen delako, hau da, erizpide extra-teatralak badira, bai, baina guk ez dugu osabarik Jaurlaritzan. Esaterako, "Antzerti" taldea sortu zuten zeharo artifiziala, eta orain bertako aktoreak bere kontura dabilta. Ihaz, "Pinpin" obra aurkeztu zuten eta frakaso bat izan zen, bi emanaldi egin zituzten 36 milioitako dirulaguntza hartu ondoren.

Guk, ostera, eskakizuna egin genuen baina bi urte eraman behar dugu elkar lanean, eta izatez, 10 urte gabilta baina izen berria ez dute onartzen. Eta dirulaguntza eman ezkerok ere, explotatua izaten zara.

TX.: Zenbait egunkaritik jaso dituzuen kritika gogorrei buruzko zuen eritzia zein da ?

EK.: Beno, zenbait ez, batetik eta gainera Deia. Guk, kritikak onartzen ditugu baina irainak ez ditugu haintzakotzat hartzen eta testu horrek ez du ez balore erizpiderik ez errespeturik, iraina da. Tipa horrek bere idatzian dio: "Sorte txarra izan genuen pirata euskaldunen aurkako borrokan" eta jende gehiena ez zen gurekin borrokatzera etorri, gu ikustera eta ondo pasatzera baino.

Guk, obraren hasieran aukera garbia egingen dugu, gure heroiak disidenteak, zapalduak, e.a. dira. Tipa hori, ostera, bes-



taldekoa da, zapaltzailea;gure lana ames-
lariei gustatzen zaie eta pentsakera za-
bala dutenei, ez ostera intolerante eta
erreprimituei.Egia esan, gure antzerkia
horrelako tipa bati gustatuko balitzaio,
zerbait aldatu beharko genukeen seinale
litzateke.

**TX.: Nori dagozkio Heroe eta Antiheroee-
en paperak ?**

EK.: Oso aktore onak gara, edozein pape-
retara moldatzen gara.Obra honetan kon-
kretuki abentura bat dago baina beste i-
kuspuntu batzuk hartzen ditugu kontutan,
adibidez, itsasontziaren mugimendua eta
zer gertatzen den itsasontzian.Hortaz,
ez dago pertsonaien arteko arazorik.Bai-
ta ere sinbologia bat ematen diogu, al-
de batetik piratak ditugu eta bestalde
erregea.

TX.: Noizko zuen obrak Euskal Telebistan?

Ek.: Oraingoz itxaron beharko dugu, ETB
ko arduradunak kritikalarien lagunak di-
rela uste dugu eta.

Gure kontura grabatuko dugu obra, eta dau-

kagun material guztiarekin bideorako gi-
doi txiki bat prestatzeko asmoa dugu.
Dena dela, Telebistarekin izan ditugun
kontaktuak nahiko desastrosoak izan di-
ra


**TX.: Nola konpontzen dituzue zuen arteko
tirabirak ?**

EK.:"Ezpatekin eta noizean behin kaino-
nazoekin".

Normalean ez dugu izaten, orain arte ez
behintzat.Ez dugu moskeatzeko denborarik,
gauza aurrera atera behar da eta guztiz
enroilatzen gara.

**TX.: Eta bestelako proiekturik ba al du-
zue ?**

EK.: Orain arte gure asmoa estrenatzea
izan da; orain badakigu egin dezakegula.
Gure asmoa aktuazioak lortzea da eta a-
halik eta gehien egin.Gerorako, badau-
kagu beste hiru obra egiteko prest dau-
denak.Orain dela gutxi argitaratua izan
da Mikelen"1999 Ora pro nobis" (Eusko
Jaurlaritzak saria eman ondoren) eta,
ideiak,noski, milaka.






AZENARIOA ETA EZTIA KATARROAREN ETSAI


Urtero-urtero jotzen bazaitu katarro madarika-
tuak, egunero hartu beharko duzu erremedio gozo hau.
Azenario mardul bat lau zatitan ebaki eta poto bat ez-
titan sartu. Ordu batzuren buruan eztiak azenarioari
bere zukua aterako dio piskanaka. Egunero hartu be-
harko duzu goilarekadatxo bat ezti. Potea hustu ondoren,
azenario berri bat sartu behar duzu ezti berrian,
baina ez lehenago.

AHOLKUAK



BERRIKUNTZA- ZALEENTZAT

Armairuak beti toki batean
edukitzea gustatzen ez bazai-
zu, kontuan hartu kontseilu
hau. Hamaika **buruhauste**
kenduko dituzu gaineretik. Al-
tzariak leku batetik bestera
eramateko, galtzerdi zaharrak
ipini hanken azpian. Horrela,
irristaka eramango dituzu,
zolua markatu gabe eta indar
gutxiago eginez, gainera. •



NEGUAN BADAEZPADA ZERRAUTSA ERAMAN MALETATEGIAN

Kotxea kamino bazterrera
joan zaizu eta elurra edo izo-
tzetatik atera ezinik zabilta.
Zerrautsa baduzu, gurpilen
aurrean bota; horrela ez zaiz-
kizu gurpilak irristatuko. Ez
baduzu, berriz, kotxearen go-
mazko oinazpikoak ipini. Ez
kezkatu, ez zaizkizu hain erraz
puskatuko eta. •

AHOLKUAK

PASTELERO DALE FUEGO !!

SAN BLAS OPILA

Osagaiak: 1kg. irina
500gr. azukrea
8 arraultze
100gr. gurina edo txerrikoiepa
Anis esentzia tanta batzuk

Nola egin:


Mahai gainean irina eta azukrea ipini eta bien erdian arraultzeak bota. Baina 8 arraultze hoietatik 2 zuringo aparte utzirik. Gurina (edo koiepa) eta arraultzeak gehitu mahai gainekoari eta guzti horrekin ogi antzerako masa bat egin, eta erreposatzen utzi.

Bitartean, 2 zuringoak 7 goilarekada azukrez bainu marian jarri eta egurrezko goilare batez bueltak eman zeharo urtu arte.

Opilak egiteko masa zatitu, 2 zm. ko lodiera emanaz. Laba beroan sartu 20 bat minutuz.

Zuringoa eta azukrea sendotu arte irabiatu, eta opilak oraindik bero daudenean gainetik jarriko diegu krema zuria.


Errezeta hau Teresa Naparrarena da eta 100 urte baino gehiago ditu.



GAZTA-TARTA

Osagaiak: Esne kondentsatua poto bat. Lau arraultze. Baso bat esne. Burgosko gazta, 250 gr. Mahaspasak eta intxaurrak.

Batidoreaz esne kondentsatua, arraultzeak, esnea eta gazta nahastu eta molde batean jarri. Labean eduki tenperatura motelean ordu batez. Labetik atera baino hamar minutu lehenago bota mahaspasak eta intxaurrak.





BEHERAPENAK

BAI ALA EZ ?

Beherapen bidez saltzeak eroslearengan izan duen eragina sinestezinezkoa izan da benetan. Datu bezala, 1.983 urtea %87 a horren alde zegoen eta gaur egun, ohizkoa da Urtarril eta Uztaileko hilabeteak beherapenekiko erlazionatzea. Bi hilabete hauetan zehar, erosleak gogoz joaten dira dendetara baina enpeinu honen alde positibo bakarra beherapena bera da. Alde negatiboak, berriz, nahiz eta horren behar izanik ez izan hori erostera jotzea armairuak "ganga liru-ragarritz bete nahian, hau da, erosi erosteal-dera salneurriak erakarrita. "Histeria kolektibo" batek bultzaturik edo, ez dira gutxi tentazio kontsumistaren azpikerian erortzen direnak.

ZER DIRA MERKEALDIAK?

Merkealdiak, definizioz, saltzaileak urtaroa-ren edo salmenta aldiaren aldakuntzaren ondorioz egiten dituen salneurrien murrizketak dira. Salmenta hauek lege konkretuen arabera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Ezarritako garaian jarri beharko dira beherapenak eta gehienez, hilabeteko iraupenaz.
2. Zortzi egun aurretik bakarrik aditzera eman beharko dira. Eta azkenengo hamar egunetan bakarrik erabili ahal izango dira Merkealdietako azken eskaintza egiten duten iragarkiak.
3. Ohizko salneurriaren ondoan jarri beharko dira jaitzitako salneurriak.

Ondoren, izendaturiko produktuen salmenta debekaturik dago:

- Ondatutakoak
- Merkealdietarako bereziki erositakoak.
- Beherapenak hasi baino hilabete aurrez dendan ez dauden produktuak.

Merkataritza araudiaren arabera, saltzaileak merkealdietan salduko dituen produktuak hilabete bat lehenago dendan egon behar dira.

"Merkealdi" eta "Saldo" terminoak bereiztea ez da batere erraza, hori azaltzeko asmotan, legeak babesten dituen beste salmenta era batzuk ere aipatuko ditugu:

GALEREKIKO SALMENTAK:

Birsalketa honako hauetan egingo da: Erositakoa, saltzaileak ohizko salneurria baino merkeago hartu edo birjartzen duenean.

LIKIDAZIOAK: Kasu hauetan soilik egin daitezke:

- Negozioaren uzte oso edo partziala. Partziala izanez gero, salduko ez diren produktuak ondo adierazi behar dira.
- Hilabete bat baino gehiagoko itxiera suposatuko duen enpresaren birmoldaketa.
- Saltzailea hil ezker, bere oinordekoek egindako produktuen salmenta.
- Lokala aldatzeagatik edo istripu bategatik.
- Erabaki judizial, arbitral edo administratibo bategatik.



"SALDO" EDO HONDAR SALMENTA:

Produktu batzurekin bakarrik egin daiteke:

- Ondatuta edo zehartuta dauden artikulak "saldo" bidez salduko dira.
- Iadanik erabiltzen ez diren produktuen salmenta da; eta noski, ohizko salmenta baino salneurri merkeagoan saltzen dira.

Honetaz gain, saltzaileari bera saltzen ari dena merkealdia, "Saldo" edo likidazioa den ondo argitzea eskatzen zaio.

Beherapenak direla eta, kontsumitzailearen eskubideari eutsiz, honako aholku hauek kontutan izan ditzazun eskatzen dizugu:



BEHERAPENAK:

EZ

- * Beharrezko ez diren salgaien erosketa masiboa.
- * Beherapenetarako bakarrik egindako serie osoak kolore eta neurri guztieta-koak daudenean mesfida zaitez.
- * Salneurri erakargarriak: Gogora ezazu 999 zenbaki famatua.
- * Etiketarik gabeko produktuak.
- * Kalitate gutxiko produktuak.
- * Argi ikusten ez diren salmenta baldintzak.

BEHERAPENAK:

BAI

- * Aukeraketa arrazionala, behar duzuna soilik erosi.
- * Produktu solte edo garaiko hondakinak kalitatea kontua izanik eros itzazu.
- * Iragarki hauek begi bistan jarrita egon behar dute:
 - . Aldaketarik ez da onartzen.
 - . Taloirik ez da onartzen.
 - . Kreditu txartelik ez da onartzen.
- * Promozio eta informazio eskaintza.
- * Jantziak behar bezala etiketatuta.

Beherapenak direla eta, "Txitxilibakio" Elgoibarko kaleetara irten da mota guztietako eritziak jasotzera.

HOGEITALAU URTEKO BULEGARIA

"Nire eritziz, beherapenak ondo daude, baina, sarritan, saltzerik izan ez duten almagaturiko jeneroa ateratzen dute, eta horregatik argi ibili beharra dago. Normalean, erropa erostera joaten naizenean, kalitatea prezio baxuenean aurkitzen saiatzen naiz!"

DENDA TXIKI BATEKO JABEA

"Merkealdiak beti izan dira. Nik 30 urte daramat dendari bezala eta betidanik ezagutu izan ditut beherapenak. Guk udako eta neguko merkealdiak egiten ditugu baina almazen handiek etengabeko merkealdiak jartzen dituzte eta hori ezinezkoa da!"

HAMAZAZPI URTEKO NESKA GAZTEA

"Nire ustez, ondo daude, behar dituzun gauzak merkeago erosteko aukera ematen dizute. Gustatzen zaizuna eta behar duzuna eros dezakezu, galtzak, jertse bat ..."

HIPERMERKATU BATEKO LANGILEA

"Hemen beti dago zerbait ofertaz, horrela jendea etengabe etortzen da hona. Urtean birritan egiten dira merkealdi bereziak: urtarilean eta irailean. Ofertaren helburua jendea erakartzea besterik ez da izaten, nahiz eta produkto batzutan galtzaile irten."



HOGEITAMAR URTEKO ETXEKOANDREA

"Prezioak zerbait jeisten dira baina ez asko. Merkealdiak normalean ez dira oso onak, jendea dendetara joan dadin erreklamo bat dira, jendea engainatzeko eta askotan beharrezkoak ez diren gauzak erosten dira eta gainera, kalitate gabekoak."

BITXIKERIAK

&&

* TERMITEN ERREKORRA

Ezaguna da termitek egiten dituzten buztinezko habiak, ikusgarri izateaz gainera, oso handiak direla. Hala ta guztiz ere, orain aurkitu berria darenaren modukorik gutxi egongo da mundu zabalean. Australiako iparraldean dagoen HAYES CREEK izeneko tokian aurkitu dute eta 6,7 m-ko altuera du. (ELHUYAR)

...

* MUNDUKO TUNELIK HANDIENA

Japonian zulatu berri duten tunel batek, 53,9 km-ko luzera du; munduko luzeena hain zuzen ere. Tunel honek Honsku eta Hokkaido irlak elkartzen ditu. Irla hauen komunikazioa itsasoz egiten zen orain arte.

Hau ospatzeko joan den Martxo 11tik 12rako ganean tunelaren bi muturreraren jende asko bildu zen. Tunela itsas mailatik 240 m-ko sakoneran dago eta itsas ondotik 100m-ko sakoneran. Gauero hiru tren irtengo dira eta urtero bi milioi pertsona garraiatzea espero da. (ELHUYAR)

...

* ITSUAK EZIN IKUSI

Buffalo-ko Unibertsitateari esker, itsu izatea edo ikusmen txarra izatea ez da anatomia ikasteko oztopo izango.

Unibertsitate horretako arduradunek brailli sistemaz idatzitako anatomi liburua kaleratu dute, ikusmen gabeko ikasleek anatomia ikasterik izan dezaten. (ELHUYAR)

...

* KONTUZ GAROAREKIN!

Euskal Herriko larretoki eta belardi asko garoz estalita daude. Garoa, bestalde, arrisku-iturri izan daiteke bere inguruan lanean diharduten langileentzat (artzai, unai eta baserritarrentzat).

Britainia Haundian egin den azterketa batek adierazi duenez, erlazio zuzena dago garoa eta minbizi-forma batzuen artean. Garoz elikatzen diren aziendek aho-eta urdail-kantzer izugarriak izaten dituzte, gizakiengan ere antzeko ondorioak izan dituzte.


Garoan hiru elementu kantzerigeno aurkitu dira: takilosidoa, azido sikimikoa eta kertzina. Hiru hauek laborategi-animaliengan kantzerra sortzen dutela ikusi da.

Bestalde, garoaren zatirik arriskutsuena esporak dira. Esporek dute eragin kantzerigenorik handiena. Garoak esporak uztaile eta urria bitartean askatzen dituzenez, urte-saso horretan kontu handiz ibili behar da garoa maneiatzen.

Britainia Haundiko osasun-arduradunek kanpaina bati hasiera eman behar diote garoaren arriskuak jendeak ezagutu ditzan. Emango diren aholkuen artean, garoa maneiatzen ari direnak moztorra erabil dezaten gomendatzea da nagusia. Aholku eta neurri guztiak basazain, artzain, unai, baserritar eta abarrei banatuko zaien liburuxka baten bilduko dira. (ELHUYAR)

...

BERDINTASUNA GEZUR HUTSA DA!!!



Azkenaldian Instituzioek egin duten propaganda ez da gaur egungo emakumearen egoeraren adierazle. Guztiok dakigu, sozialki lan okerrenak bezala kontsideratuak emakumearen esku daudela gehienbat. Agresioak, abusuak eguneroko gaiak dira eta hauek zirrara berezia sortzen dute emakumearengan. Eraso hauek direla eta, Txitxilibakio Elgoibarko emakume Taldeengana hurbildu da eritzi batzuk jasotzeko asmotan:

1. Nolakoa da gaur egun emakumearen egoera?
2. Emakume guztiak jabetzen al dira zapalkuntzaz?
3. Martxoaren 8 a "Emakumearen eguna" dela eta, ekintzaren bat prestatu al duzue?
4. Matxismoa txarra bada, zergatik da ona Feminismoa?

♦ ♦ ♦ ♦

1. Gizonezko eta emakumeak biologikoki ezberdinak garenez, gizarteak jerarkizazio eta sexu bakoitzarenganako "rol" ezberdin batzu ezartzen dizkigu. Hortaz, gure ustez, maila horretan pertsona guztiak gaude zapaldurik eta ez emakumeak bakarrik.

Zer gertatzen da orduan "Emakumearen zapalkuntzaz" bakarrik hitz egiten denean? Emakumeori bigarren maila baten geldia arazi gaituzte eta nolabait, gizonezkoen gerizpe izan gara, horregatik mugitu behar gara gizonezkoen aina izan gaitzen, eta ez gutxiago.

Baina, noski, guk, gizonezkoak bezalakoak izaterik ez dugu nahi. Badakigu, gizonezkoengandik asko ikasi behar dugula baina beraiek ere badute gugandik zer ikasi.

Eta guk, gazteok, badugu lan berezia, guri nolabaiteko "ateak" zabaldu zaizkigu, etxetik kanpo lan egiten dugu eta gizartean parte hartzen dugu. Horregatik, benetan garena eta egin dezakeguna eskaintzen ahalegindu behar gara, emakumeak inoiz izan ez duena daukagu, baina halere, hobe duzu zuk "emakume" nota gehiegirik ez ematerik edo zure kasa "Zeu" izaterik.

2. Pertsona bakoitza mundu bat da eta berak pentsatzen duena ezin dugu jakin, baina argi dagoena zera da, emakume askok ongi ikasia eta erabat onartua dutela euren papera zein izan behar den, emazte ona eta ondoren, ama ona. Guk ez dugu esaten hori gaizki dagoenik, baina gizarte honek ez digu aukera gehiegirik ematen eta azken finean hori da gugandik espero duena.

3. Bezperan "Zazpiki Irratian" saio bat egingo dugu, eta Martxoak 8 a guretzat hartuko dugu, gure artean afaritxo bat egin eta elkar ondo pasa dezagun.

Baina, Apirilaren 3tik 7ra bitartean emakumeentzat Autodefentsa ikastaro bat antolatzen ari gara. Gu, indarrean gizonak baino gutxiago garenez, seguritate falta nabari dugu. Ikastaro honetan, kolpeei erantzuten ikasteaz gain, gizarteko egoera ezberdinetan zein irtenbide topa ikusiko dugu.

4. Matxismoa, gizonezkoak gehiago baloratzen duelako da txarra, emakumea baztertzen duelako.

Feminismoa, berriz, pertsonak "berdin" ikusi nahi dituelako da ona. Hortaz, Fe-

minismoa emakumeen eskubideak lortzearen borrokaz arduratzen da, eta argi dago gizarte hontan behar beharrezkoa dela, guganako bakoitzari mundu berri bat eskaintzen bait digu.



Egizan

1. Publiko eta pribatuaren arteko zati-ketak, emakumea egitura sozialetatik urundu du. Ideologia patriarkalak kontzientzi indibiduala zabaldu du, eta honek erasoak ez denunziatzea, kapitalaren lehen langabetuak izatea, hau da, berriz emakumea etxe barrura sartzea ekarri du berarekin.

Emakumeok gure interesak defenditzeko otoporik besterik ez dugu, eta honek, azken finean, arazoaren kontzientzi kolektibo falta dakar, hau da, elkartasun falta.

Guk, emakumearen beharra ikusten dugu oraingo marko juridiko-politikoak aldatzeko, eta emakume langileen bizi hobetzeko, programa politiko orokor bat lortzeko. Hobekuntza honen barruan puntu hauek ditugu:

- Emakumeek lan munduan sartzeko aukera izan dezaten lan plangintza bat.
- Hezketa sexista eta burges honen aldatzea. "Rolik" gabeko hezketa bat.
- Eskubide eta libertate demokratiko batzuka lortzea: libertate sexuala, baikoitzak bere gorputzarekin nahi duena egiteko eskubidea.

1. Momentu honetan emakumea bazterturik dagoen edo ez, nik neuk ez dakit, baina bizi garrantzitsua baina askoz atzerago dagoela argi eta garbi ikusten da; hain zuzen ere, jasan izan duen baztertze joragatik eman da hori.

2. Bizitza honetan bete behar duen paperekin ados daude emakume asko; seguraski, beste emakume batzuen eritziz, ados dauden horiek gizartean bazterturik aurkitzen dira, baina, noski, eurak ez dira horretaz jabetzen, kasu horietan jadanik ez dago bazterketarik. Baina emakume edo gizonezkoaren lana neurtzerakoan ezberdintasuna dagoela usate dugu; baita jakituria neurtzeko garaian.



2. Ez. Lehen aipatu dugun bezala, gizarte honek arazo kolektiboak indibidualetan bilakatu ditu. Eta gehiengoari, oso zaila egiten zaio kolektibo bezala zapaldua dagoela asumitzea, "trapu zikinak etxean garbituz". Emakumeok, egoera honen aurrean, erantzun beharra asumitu behar dugu. Gure bizimodua aldatzeko, partizipazio aktibo bat behar beharrezkoa ikusten dugu, bai sindikal mailan, gizarte mailan eta bai politika mailan.

3. Martxoaren 8 a "Emakumearen eguna" dela argi eta garbi gera dadila. Jendea sensibilizatzeko Mobilizazioak egongo dira. Baita ere, Donostian, Manifestapen bat egingo da eta lema "Emakumeok benetako alternatiba baten alde ekin borrokari" izango da.

4. Guk errepresiorik gabeko gizarte bat nahi dugu. Gizarte libre bat. Emakume bezala eta EGIZAN en organizaturiko emakume bezala, hortan lan egiteko asmotan gaude eta horretan kokatzen dugu gure borroka.

3. Martxoaren 8 an seguraski, afari bat egingo dugu, baina hain zuzen ere Martxoan, sexologiaz, menopausiaz, gizarte honetan emakumearen hezkuntza eta oreka handiago bat izateko trebetasunetaz eskainitako hitzaldi batzuk eta, seguraski, "Radio Cadena"ko Esther Remioren ardurapean, Zine Forunez osatuta, Elgoibarko emakumeari eskainitako aste bat antolatu nahi dugu.

4. Matxismoa eta Feminismoa bera ere txarrak direla uste dut nik; erabateko kritika joera txarra da, eta elkarriketa serioak edukitzeko garaia dela uste dut. Alde bien zati ona eta egiazkoa onartu eta elkarrekiko lana hasi; badakit hau amets bat dela, nahiz eta neuk esan zailantzak ditut, baina bidezkoena hori litzateke. Hau gertatzen den bitartean, emakumearen alde borrokatzeko prest egongo den lehena neu izango naiz, zentzutasunez abiatuz, inolako gehiegikeririk gabe.

«» «» «»

(HAIZEA ko Felisa Garitagoitia)



LIBURUAK

Euskalgintzan eta euskal literaturgintzan Gotzon Garate aurkezteko beharrik ez dago. Gaur egun Deustuko Unibertsitatean euskal literatura irakasten duen elgoibartar honek azken 18 urte hauetan New Yorken eman du udaldia. Hainbat egonalditan zehar ikusitakoa eta bizi izandakoa liburu batean eskeintzen digu oraingoan Garatek, "New York, New York" izenburua daraman liburu batean.

"New York, New York"

ZINEA




Azken urteotan burututako milaka amerikar pelikuletan azaltzen diren gaztetxoak hazi egin dira. Baita gustu txarreko txisteak egiteko gai diren unibertsitari ganberroak ere, eta honela «Cocktail»-eko protagonistak bizitzari eta bere ilusioei aurre egin beharrean gertatzen da. Filmea, aldiz, ez da heldua eta hainbeste urtetan munduko karteldegiak inbaditzen ari diren pelikula lelo horietako edozeinetatik irten zitekeen beste gazte baten arazo sozial eta pertsonalak aurkezten ditu.

Roger Donaldson, Hollywood-era emigratutako zuzendari australiarretariko bat da eta bere arrakasta handiena «No hay salida»-rekin lortu zuen. Oraingoan, berriz, Heywood Gould-en gidoi autobiografikoa filmatu du. Honek bere igoera, beherakada eta azken zoriona kontatzen ditu, era berean amerikar ametsaren bere ikuspegia azaltzen duelarik. Protagonistak, Tom Cruise xarmangarriak, sozialki igotzea nahi du, mailak bizkor pasatzea eta diru asko irabaztea. Adorea, inteligentzia, handinahia eta gaitasuna soberan dauzka. Formazioa eta harremanak falta zaizkio.

"Cocktail"

9 ERRUAK



ARTZAIAREN TESTAMENTUA

Artzai batek, bere hiru semei, testamentua egi-
tean, bere ardiak banatzen dizkie eta banatu ere:

Seme zaharrenari, artzaiak zeuzkan ardi guzien
erdiak eta ardi-erdi ematen dizkio.

Bigarren semeari, gelditzen zaizkion ardi guzien
erdiak eta ardi-erdi ematen dizkio.

Hirugarren semeari, gelditzen zaizkion ardi gu-
zien erdiak eta ardi-erdi ematen dizkio.

Artzaiak ardi guztiak banatu ditu eta hiru se-
mei ardi osoak banatu dizkie. Zenbat ardi zituen?

ASMAKIZUNA

BA AL DAKIZU NOR DEN?

Joko honetan zenbait pertsonaiaren argazki zatiak aurkeztuko dizkizuegu. Idatziz pertsonaia horien ezau-garri batzuk adieraziko ditugu. Ea gaurkoari antzematen diozuen.

- Bertsolaria.
- Egunkari batean idazten du.

?



BENETAN ERO HAUNDIA


- Aizan! Ikusi al dun pasatzen hemendik ero altu eta gizen bat, 50 kilo eta 1'60 altura ingurukoa?
- Baina nola izango duk altua eta gizena, 50 kiloko pisua eta 1'60ko altura besterik ez badu?
- Esan dinat, bada, erotuta dagoela!



Soluzioak 39. orrialdean

JEROGLIFIKOA

Liburuetako orri barrenetan egoten dira.



IRAKURLEAREN TXOKOA

LANAK!

*Arratsaldeetan etxea eta umeak zaintzeko emakume euskalduna eskaintzen da. Tlf: 741730

HARREMANAK!

*Elgoibarko tabernari jatorrenari: Ihauterietako gaua ez dut sekula santan ahaztuko. Laister arte. Marilin.

*Irakurleari: Larunbat goizetan libre bazaude, etor zaitez gure txokora. Zure zain egongo gara. Txitxilibakio.

*Txitxilibakioren mezua globoan dator oraingoan




Oraindik ez duzue orrialde hau bete. Anima zaitez! Bestelako eritzi eta lanak ere onartzen ditut. Zuzenbidea zure agendan apuntatu ezazu:
San Frantzisko, 24, 1.a, ezk.



Mesedez, emango al zenidake pezeta bat?

PEZETA BAT ?
ZERDA PEZETA BAT ???

Arrazoi duzu, gaur egun
pezeta bat ez da ezer.
Emaizkidazu hogei
duro.



AURREKO ALEAREN SOLUZIOAK

Jeroglifikoak:

Begia ubeltzean.

Autodefinitua

		Z	P	A					
	Z	I	K	O	I	T	Z		
		L	A	R	R	E	A		
		Z	A	L	U	A	R	T	
A		R	B	I	K	I			
I	B	O	N	Z	A	L	I	A	
	E	R	A	Z	A	K	A		
	A	N	A	S	A	K	L	M	
	D	I	Z	K	I	D	A	Z	U
	D	U	N	A	L	A	B	A	K
	G	U	E	Z	C	R	G	A	
	R	A	A	Z	A	R	O		
	O	R	E	N	E	K	A	I	N
	I	K	U	T	U	K	A	L	E

Letra-Zopa

- Trobiño
- Pettara
- Tolosa
- Baztan
- Herriberri
- Arratia

ALE HONEN SOLUZIOAK

Ba al dakizu nor den? BASARRI

Jeroglifikoa: OHARRA

10 Erruak

- 1: Iragarkipeko itzala
- 2: Hiru hortzekoa
- 3: Deabruaren itzala
- 4: Garrak
- 5: Patilla
- 6: Sua itzaltzeko tubo
- 7: Hormako mantxak
- 8: Bizarra
- 9: Orkatila
- 10: Extintor/ea

Asmakizuna:

Zazpi ardi ditu artzainak.

ИРАКЪЛЪЕВЪНЪ ТЪНЪНЪ

ИРАКЪЛЪЕВЪНЪ ТЪНЪНЪ

ИРАКЪЛЪЕВЪНЪ ТЪНЪНЪ

ИРАКЪЛЪЕВЪНЪ ТЪНЪНЪ

ИРАКЪЛЪЕВЪНЪ ТЪНЪНЪ

URTE BATEAN ABERASTU
DEN GIZONA
12 HILABETE LEHENAGO
URKATU BEHAR ZUTEN.

- ERRUSIAR ATSOTITZA -



